

GORBEIAKO PARKE NATURALA



8



Gorbeia txoko magikoa da eta, bertan, tradizioak eta kondairek era berezian marrazten digute mendeetan zehar lehengo eta oraingo biztanleek natura amaigabearekin izan duten harremana. Historiaurreko iragana, harginak, artzainak, meatzeak, errotak, lubakiak eta ikazkinak gogorarazten dizkigute.

15 km inguru dituen ibilbide honetan Baia ibaiaren ondotik ibiliko gara, Gorbeiaiko parke naturalaren aberastasunak ezagutzeko, berau baita Euskal Autonomia Erkidegoko parkerik handiena.

Gorbeian ur jauziak ikus ditzakegu, Goiuri ikaragarria adibidez, baita Natura 2000 Sarean babestuta dagoen Baia ibaia zeharkatzen duten baso alubialak; pagadi amaiezinak, Altubekoa kasu, eta koba eta barrunbideak, espeleologia maite dutenen gozamenerako. Zubi, ezponda eta mendi hegalez nahiz pagadi eta artadiz apaindutako paseo honek kondaira, amets eta beldurretan barrena galtzeko gonbita egiten digu, euskal imaginario kolektiboaren zati handi bat islatzen baitu.




Ibilbide honek ondo bereizitako bi zati ditu. Zailtasunik gabeko paseo bat eman nahi baduzu paisaia xarmant batean, **1. TARTEA** gomendatzen dizugu, Baia ibaiaren inguruan kokatzen dena, Gorbeia mendiaren hegaleraino, eta gero abialekura bueltatzea. **2. TARTEAK** beste 10 kilometroz zailtasun apur bat gehitzeko aukera ematen dizu.

1. TARTEA: BAIA IBAIAN

0 km	Gure abialekua parketxeko aparkalekua da. Ibilbidea hasteko, pista nagusia (Baia bidezidorra) jarraitu behar da, GR-282rekin (artzain bidea) bat datorrena.
0,7 km	Gure eskuinera Zaldibartxo putzua dago, kondaira eta misterioen iturri eta, udan, inguruko gazteen bainuleku gogokoena.
1,2 km	Igatz zubitik gurutzatuko dugu Baia ibaia, ubidetik ere gurutzatu dezakegun arren.
1,8 km	200 metro inguruko malda gogor baten amaierara iritsiko gara.
3,1 km	Aldarroko zubia eta aterpea daude metro batzuetara. Aurrera jarraituko dugu.
4,1 km	Egurrezko pasabidea hartuko dugu, pistaren paraleloan.
4,4 km	Bidea banatzen da. Ezkerretik jarraituko dugu, berriz ere ibaia gurutzatuz.
5,6 km	Arlobi zubia ikus dezakegu gure eskuinera. Handik hasten da Gorbeia mendirako igoera. Atzean utzi eta pistatik zuzen jarraituko dugu. Metro batzuk aurrerago egurrezko pasabide bat dago. Tarte honetatik aurrera bideak zailtasun gehiago izango du.

2. TARTEA: ALTUBEKO PAGADIAN BARRENA

5,8 km	Bidea banatzen da. Ezkerreko bidea hartuko dugu.
6,2 km	Ibaia ubidetik guruztatuko dugu eta igoera gogor bati ekingo diogu.
6,4 km	Bidea banatzen da. Ezkerreko bidea hartuko dugu. Metro gutxi batzuetan, ezkerrera doan bihurgune bat hartu ondoren, pagadi ikusgarri bat zeharkatuko dugu.
7,3 km	Pistatik jarraituko dugu, apur bat jaitsiz.
7,7 km	Bidegurutzea. Ezkerrera bira egingo dugu, Altubeko bidezidorrera. GR-282tik irtengo gara.
8,6 km	Bidegurutzea. Zapaltzen ari garen pistatik irten eta, eskuinera, okerrago seinaleztatuta dagoen beste bat hartuko dugu, Altubeko bidezidorrera doana, hain zuzen ere.  Kontuz! Bidea estutu egiten da. Parkeko ibilbideen marka horiak jarraituko ditugu, pagadi zoragarri honen gailurretan jarraitzeko.



Zaldibartxoko putzua.





BAIA IBAIA



Ilbilde honetan Baia ibaiaren ondotik joango gara ibilaldia- ren zati handi batean. Sahats eta haltzez jantzitako ibaiertza **Gor- beiako parke naturaleko espezie esanguratsuenetako batzuen gordeleku** da: Martin arrantzale ikusgarriak, igarabak, amurra- in arruntak edo bisoi europarrak bizia ematen diote ibaiaren urari.



GOIURI ETA BERE KONDAIRA

Gibijoko mendilerrotik dator Oiardo erreka eta, Goiuri parean, Altubeko pagadira erortzen den **100 metro baino gehiagoko ur jauzi** ikaragarria sortzen du. Euskal mitologiaren arabera, Goiurin gazte bat bizi izan zen, jendeak "Urjauzi" izenez ezagutzen zuena, umetan oso negartia baitzen. Behin, Altube ibaitik hurbil, Urjauzik Baigorri lamia ispilu magiko batekin jolasten zegoela ikusi zuen. Lamia konturatu gabe ispilua lapurtu zion eta aberastu egin zen, ispiluari bere gurari guztiak eskatuta. Arratsalde batez, Baigorriren ahotsak siestatik iratzarri zuen eta bere izena galdetu zion. Ispiluaren aurrean "Urjauzi" esatean, gazteak hiltzeko desioa sentitu zuen eta sakan batera igo zen, bere buruaz beste egiteko prest. Baina ezin izan zuen. Negar eta negar egin zuen, putzu bat sortu arte. Putzua, apurka-apurka, erreka bihurtu zen, eta, ondoren, oraindik ere sakan honetan behera doan ibaia. Harrezkero inork ez zuen Urjauziri buruzko berririk izan, baina diotenez, neguan, ur jauzia gainezka jaisten denean, oraindik entzun daitezke gazte haren negar zotinak.


9,7 km	Zuzen jarraituko dugu. Eskuineko bidea hartuz gero, minutu batzuetan Burbona mendiaren gailurrera iritsiko zinateke.
11,4 km	Eskuinera joko du. Pagadiaz gozatzen jarraituko dugu.
13,1 km	Bidea banatzen da. Zuzen jarraituko dugu, ezkerreko bidetik (Baia bidezidorrerantz). Zeure burua indarrez ondo ikusten baduzu, Txintxularra mendira doan bidean gora egin dezakegu, eskuineko bidea hartuta. Ikuspegiak zoragarriak dira.
15,2 km	Jaitsiera oso piko batean behera, hasierako aparkalekura iritsiko gara.
15,5 km	Ibilbidearen amaiera.



ALTUBEKO PAGADIA

Basoak, hostoz eta bizitzaz beteak, Gorbeiaiko parke naturalaren erakargarritasun nagusietako bat dira. **Pagadi, amezti, harizti eta, neurri txikiagoan, haltzadi, erkamezti, artadi kantauriar, pinu gorrien pinudi eta urkidiek** udazken kolorez betetzen dute Euskadiko txoko ezagun hau. Hegoaldean, Altubeko pagadi zabala nabarmentzen da, ibilbide honen zati handi batean lagun izango duzuna.

IBILBIDEAREN PROFILA



LEKU INTERESGARRIAK

**NATURA ETA PAISAIA**

1. Gorbeiko parke naturala
2. Altubeko pagadia
3. Baia ibaia

Inguruan:

- Goiuriko ur jauzia
- Mairulegorretako kobak

**KULTURA**

1. Aldarro zubia
2. Arlobi zubia
3. Arkarai zubia


Inguruan:

- Oroko Andra Mariaren santutegia
- Jugatxiko Andra Mariaren ermita

**AISIALDIRAKO GUNEA**

1. Aisialdirako tokia
2. Zaldibartxoko putzuak
3. Interpretazio zentroa. Parketxea

MAPA



FITXA TEKNIKOA

Nola heldu:	Parketxea. Sarriatik, N-622
Distantzia, guztira:	15,5 kilometro
Iraupena, gutxi gorabehera:	2 ordu eta erdi
Zailtasuna:	1. Tarte: Txikia • 2. Tarte: Handia
Gomendatutako bizikleta:	BTTa
Desnibel metatua:	429 metro

EZ GERATU IKUSI GABE...



GORBEIAKO GAILURRA

18 metroko gurutzea du buru Gorbeiak, **Arabako gailurrik altuenak** (1.482 metro). Euskadiko mendizaleen sinbolo den honek, Euskal Autonomia Erkidegoko parke naturalik handiena gordetzen du. Atzera **100 milioi urte baino gehiago** jo behar da mendiaren jatorria aurkitzeko, itsasoak Bizkaia eta Araba artean banatutako lurralde hau estaltzen zuen garaira.

OREINAREN ORROA

Gorbeia **irailean eta urrian** bisitatzen baduzu, parke natural honetan bizi den animalia baten oihu sutsua entzun ahalko duzu. Europako oreinak –pasa den mendean sartu zen berriz Parkean- **“sedukziorako” duen gaitasuna** erakusten du, basoak dardaran jartzen baititu bere eztarriko soinuarekin, arreske dagoenean. Zoragarria da.